

OTROS

Nace la fundación Sustrai Erakuntza. Boletín Ekologistak Martxan. Mayo de 2010

Bestelako begirada bat garapenari. Berriak egindako elkarrizketa batetik. 2011/02/25

La manifestación contra el TAV de hoy en Iruñea recibe numerosos apoyos. Gara. 04/02/2011.

Sustrai, batallas pendientes. Entrevista en Diario de Noticias. 20/03/2011.

Martin Zelaia, Sustrai Erakuntza fundazioko kidea. Elkarrizketa Guaixe aldizkarian. 2011/06/02.

Nace la Fundación Sustrai Erakuntza

La Fundación Sustrai Erakuntza nace como organización no gubernamental, sin ánimo de lucro, con el objetivo de la defensa del medio ambiente sobre todo en la Comunidad Foral de Navarra.

Su acción se basará en la investigación y análisis de información a cerca de los impactos negativos sobre el entorno provocados por las diferentes entidades públicas y privadas, así como el desarrollo de actividades y espacios para difundir esa información. Por otro lado, buscará medidas para la mitigación o resolución de esos impactos desde un nivel técnico y jurídico a través de la presentación de alegaciones u otras actuaciones legales. La formación y capacitación en problemáticas ambientales y territoriales será otro objetivo. La Fundación Sustrai informa también que se centrará en el cumplimiento de legislación que salvaguarda el acceso a la información,



la participación pública y el acceso a la justicia en materia de medio ambiente como son la Ley 27/2006, de 18 de julio. Como objetivos sociales Sustrai fomentará el decrecimiento, la producción ecológica e iniciativas medioambientales.

Sustrai no parte de cero sino que es la continuación o la vertiente más técnica y jurídica de campañas y activistas que han estado activo desde hace tiempo. Los proyectos que incluyen demuestran su procedencia: TAV, centrales térmicas, gestión de Residuos, etc. En el caso del TAV la fundación ya ha iniciado trámites legales contra éste. Información de sus trámites puede encontrarse en su página web. Para continuar con el arduo trabajo que han iniciado Sustrai solicita apoyos económicos que puede ser incluso la desgravación de tu renta!

www.fundacionsustrai.org

Gobernu espainarrak nekazaritza transgenikoari buruzko ikerkuntzan 60 aldiz gehiago inbertitzen du ekologikoan baino. Nekazaritza ekologikoak berriz 25 aldiz enplegu gehiago sortzen du eta 16 aldiz gehiago lurrazala erabiltzen du transgenikoak baino.

(Lurraren Lagunen arabera)

~~txiste beltza~~
~~berdea~~



**BESTE UDA BELTZ BATEN AURREAN...
JARRERA BERDEA!!**

**ETA
BESTELAKOAK!!**

Iaz, Sustrai fundazioa sortu zen, Nafarroaren garapen iraunkorraren alde egiteko. Guztiz gaitzesten ditu abiadura handiko trenaren eta zentral termikoen proiektuak, besteak beste.

Bestelako begirada bat garapenari

Maialen Uhartea Iruñea

Krisi garaian ere, zenbait egitasmo aurrera eramateko prest dira administrazio publiko eta entitate pribatu zenbait. Garapena eta hazkundea dituzte xede. Ingurumenari eta gizarteari oro har kalte egiten ote dieten, ordea, gainera baino ez dute aztertzen maiz. AHT abiadura handiko trenaren eta Castejongo zentral termikoa: bi adibide, bi proiektu handi. Sustrai fundazioa buru-belarri dabil bi horietan; irtenbideen bilaketan, alegazio edo bestelako jardueraren bitartez eragiteko helburua du. Ekologistak Martxan-ek, AHT Gelditu! Elkarlanak eta Castejongo Zentral Termikoaren Aurkako Plataformak osatzen dute fundazioa, 2010. urtetik. «Luzerako oposizio sendoa bat izan nahi dugu, zenbait proiektuari aurre egiteko eta ezkututzen dizkigutenak argitaratu ahal izateko. Makro-egitasmoei sakoneko ikuskatzea egiteko asmoa dugu», azaldu du Jorge Iriartek, Sustrai kidea.


Orain arte, izan dira makro-egitasmo horien aurkako taldeak, baina epe motzera begirakoak eta unean unekoak izan direla argitu du Iriartek: «Oposizio txikia zen, eta sistemaren aurkako dinamizari jarraiki ari ziren talde horiek». Sustrai fundazioak Nafarroako zenbait eskualde, udal eta kontzejuren babesa du. Horien artean daude Araitz-Betelu, Sakana, Iruñerria, Tafalla eta Erribe-

rako hainbat udal eta kontzeju. Horiei gehitu behar zaizkie beste 50 kolaboratzaile, hamar kolektibo eta banako zenbaiten babesa.

Horregatik, oraingoan, Sustrai irauteko xedea du, luzaroan oposizio sendoa izan dezaten zenbait proiektuak. Izan ere, fundazioaren arabera, «abiadura handiko trenaren azpiegitura erraldoia da; beharrezkoa ez den hegazkin gurgildun bat». «Aberats berrien kulturaren murgilduta gauden honetan, ez dugu nahikoa izaten dagoeneko dugunarekin, eta behar berriak sortzen ditugu», azaldu du Iriartek.

Sarritan, hazkunde mugagabea nahi du gizartearen zati batek, askotan erreparatu gabe ingurumeneko baliabideak mugatuak direla. «Guztiz kultura kontraesankorrean bizi gara; bizi-maila altua dugu Nafarroan, azpiegitura ere lehen postuetan gaude, baina Miguel Sanzen gobernuak aurrera egiteko bide bakarra horixe dela ikusarazi nahi du, egitasmoak aurrera eramaten jarraitzea, eurei egoki iruditzen zaien azpiegitura horren zenbait alderdi ezkutatu», ohartarazi du Iriartek.

Apirilean adjudikatuko dute AHTaren proiektua. Uztailean hastekoak dira Nafarroan abiadura handiko trenaren ibilbidea eraikitzen. Desjabetze prozesua dator orain. Paper kontuak lehenik. Eta tartean, «hauteskunde interesak eta interes ekonomikoak», Sustrairen arabera. Hori diru publikoa enpresa pribatue-



Sustrai fundazioak garapenaren eredu berriaren alde egitea du sorrera helburuetako bat. MARISOL RAMIREZ / ARP

tan inbertitzeko erarik a proposena dela ohartarazi du Iriartek. «Proiektuari ekonomikoki aurre egiteko, zerbitzu publikoetako dirua erabiliko dute», Mugitu mugimenduaren esanetan.

Argudio motelak dituzte AHT beharrezkoa dela sinetsarazteko, horixe dio Iriartek: «Propaganda eta marketin kanpaina berak erabiltzen dituzte: garapena, Europarako bidea... Zer dago horren atzean? Ustelkeria eta hori ezkutatu nahia besterik ez». Iriartek ohartarazi du informaziorik ez emateak jendeak ezer ez jakitea eta, beraz, harentzat interesik ez izatea dakarrela.

Informazio faltagatik, hain justu, bi bider jo dute Sustrai fundazioko kideek Nafarroako Gobernura, ingurumenari buruzko informazio eskubidea aldarrikatzera. Hala ere, informazio ukatu diote iragan urtean sortu zen fundazioari. Izan ere, abiadura handiko trenaren inguruko informaziorik ez dietela emango erantzun dio Gobernuak. Arartekoak, ordea, Sustrairi eman dio arrazoia, «ingurumenari buruzko informazioa jasotzea guztion eskubide delako». Desinformazioaren atzean informazioa ezkututzen ari direla salatu du Sustrai.

Uztailean hastekoak izango dira obretan. Bitartean, ordea, Etxabakoitzen eraiki nahi duten geltoki berriaren onarpen lanean ari dira. Sustrai helegitea aurkeztu zuen joan den azaroan Nafarroako Justizia Epaitegian. Izan ere, haren iritziz, 2007an gizarteratutako informazioa eta 2010ean onartutakoa ez datoz bat. «Aldaketak egin dituzte txosten horietan, baina horiek ez dituzte argitara eman, ez dute haien berri eman», dio Iriartek.

Gainera, Etxabakoitzeko geltokia eraikitze lanek kalte ugari eragingo dituztela ohartarazi du Iriartek: «Geltokiaren eraikuntza lanek ibaietako urak kutsatuko dituzte, eta zaratek eta dardarek, berriz, lur eremu-



Egitasmo handien aurka oposizio sendoa izan nahi du Sustrai fundazioak luzaroan»

«AHTak sortuko duen kaltea handia izango da: lur zatiketa da nabarmenetako bat»

JORGE IRIARTE
Sustrai fundazioko kidea

kalte egingo diete». Gainera, ohartarazi duenez, halako lanetarako zabortege gehiago eraiki behar izaten dira. Hala ere, salatu du gobernuaren proiektuaren idatzian halako gauzak ez direla jasotzen.

Usteko beharrak betetzeko

Abiadura handiko trenak ez du salgaiak garraiatzeko balioko. Ez behintzat agintariak eta egitasmoaren aldeko zenbaitek dioten adina. Izan ere, ezingo du pisu anitz garraiatu, batetik, burdinbideak ez lukeelako jasango, eta behin eta berriz kaltetuko liratekeelako horiek. Bestetik, salgaiak garraiatu behar baditu AHTk, moteldu egingo du bidaierien trenen joan-etorriak eta, beraz, merkantziak gauzez edota ordutegi zehatzetan garraiatu beharko dira.

Posible da salgaiak eramateko erabiltzea, baina ez da errentaga-

ria, behin eta berriz aritu behar lukeelako burdinbideak konpontzen eta ez lukeelako errepi-deetako garraioan eraginik izango, ez luke zirkulazioa arinduko, Sustrai fundazioak azaldu duenez.

«Gizabanakook ere egunerokan ez dugu hartuko tren lasterra, joan-etorri gehienak laburrak direlako gehienontzat, eta abiadura handiko trenak hiriburuak baino ez dituelako lotuko», adierazi du Iriartek.

Goitik beherako zatiketa

Kalteak ugariak izango direla dio Iriartek: «Nabarmenetariko bat lur zatiketarena izan daiteke». Beste zatiketa handi bat gehiago jasan beharko luke lurrak. Horrekin batera, gainera, animaliek ere euren habitataren zatiketa pairatuko lukete, eta ekosistemaren suntsiketara, pausoz pauso». Horrez gain, AHTa garapenarekin lotu arren, hainbatetan muga ere bilaka daiteke, Sustrai fundazioko kidearen irudiko, batez ere zenbait herri bitan zatituko dituelako, Tafalla kasu.

«Munduan klima aldaketa gaur egun jasaten ari garen ingurumenaren erantzunetako bat da», adierazi du Iriartek. Izan ere, «ama lurrak mugak ditu, eta horiek betetzeko bidean daude», gaineratu du. Trenak karbono dioxidoa isuriko du eta jada Nafarroan garraio sistemak isurtzen du gehien CO2. Ez bakarrik hori, AHTa eraikitzeak dakarren guztiak ere izugarriko kutsadura sortuko baitu. Beraz, Iriartek argi utzi du Sustrai fundazioak hori guztia saihesteko lanean jarraituko duela. Gainera, ez epe motzean, proiektu trinko eta estrategiko gisa baizik.

ERROTA KAMPINA
ATERPETXEA

Mendigorría (Nafarroa) Tel.: 948 34 06 04
www.campingmolino.com

Nafarroako erdialdean kokatua, zure oporrak eta asteburuak pasatzeko. Ikastolek, ikastetxeek eta jubilatuen elkarteek ibilaldiak egiteko, kirol elkarteentzako txangoetarako eta, orobat, gazteentzako aterpetxe bezala ezin hobea den kokapen eta klima baten jabe.

Honako hauek ditu kanpinak:

• Hesiz mugatutako partzelak	• BUNGALOWAK	• Haur parkea
• Saneamendua	• Mendiko bizikletak	• Mini golf
• Argia eta edateko ura	• Supermerkatua	• Kutxazain automatiko
• Ur beroko zerbitzu zabalak	• Taberna	• Internet
• Prezio bereziak pentisio osoko taldeentzako literak dituzten geletan	• Self-service jatetxea	• Jardueren monitorre
• Piraguismo ikastaroak	• Igerilekuak	• Kirol zirkuitoa
	• Squasha	

Galdetu prezioak karabanen gordelekuetarako

GARA > Idatzia > Euskal Herria

La manifestación contra el TAV de hoy en Iruñea recibe numerosos apoyos

GARA |

La manifestación en contra del Tren de Alta Velocidad (TAV), cuyas obras están a punto de comenzar en Nafarroa, que AHT Gelditu! Elkarlana ha convocado para esta tarde en Iruñea (parque de Antoniutti, 18.00) bajo el lema «TAV en Nafarroa, no dejemos que arranque» ha recibido numerosos apoyos.

La izquierda abertzale hizo un llamamiento a acudir destacando «la estafa» que supone una macroinversión de este tipo en tiempos de crisis. EA y Herritarron Garaia se sumaron a la convocatoria destacando que este macroproyecto «no responde a las necesidades e intereses de la ciudadanía». Por su parte, Euskal Komunistak-PCPE también animó a acudir a Iruñea, al igual que el colectivo Sustrai Erakuntza y la Plataforma Ribera por el Tren Social, No al TAV.

ENRIQUE CONDE
PAMPLONA

LOS juicios de esta envergadura se empiezan a ganar cuando los movimientos sociales ya han perdido su impulso inicial, al cabo de muchos años, y lo que buscamos es mantener viva esa lucha, un nexo entre el canal jurídico y técnico con el movimiento ciudadano que acompaña a esas acciones desarrollistas que atacan el medio ambiente". Así presenta Martín José Zelaia, el presidente, a su reciente criatura, la Fundación Sustrai Erakuntza, que engloba de momento a 50 colaboradores, diez colectivos y seis entidades locales.

Sustrai nace del trabajo de "confluencia de gente que procede de la lucha contra el TAV y contra las centrales térmicas" y que pretende desarrollarse como "herramienta de apoyo a nivel técnico y jurídico de la lucha medioambiental, algo que no se cubría desde ningún colectivo sobre todo por su falta de dinero". Nacida el pasado año, Sustrai declara sus intenciones en su definición: "Se trata de una organización sin ánimo de lucro, en defensa del medio ambiente, y que busca dar un servicio a esos colectivos que están denunciando lo que son vulneraciones de derecho medioambiental y ataques desde las políticas desarrollistas del Gobierno. La Fundación no viene ni a sustituir a los movimientos sociales ni tampoco a absorberlos, se brinda para luchar contra las administraciones y los grupos privados de poder".

ACCESO A LA INFORMACIÓN Juicio contra el TAV

Entre las batallas pendientes, la nueva Fundación Sustrai pone en el ojo del huracán la carencia de información pública en el caso del Tren de Alta Velocidad. "Se demandó al Gobierno de Navarra ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del TSJN por no informar adecuadamente a la población sobre los aspectos ambientales del TAV. No se nos dio la información ambiental que solicitamos, y al recurrir al Defensor del Pueblo, éste nos da la razón hasta en dos ocasiones". Sin embargo, en junio se inició la vista oral, paralizada por que el juez se marchó a otra jurisdicción, pero Sustrai interpreta que en el desarrollo del juicio "se demostró que el Gobierno pensaba que no teníamos ningún argumento serio, pero que nos protegen las directivas europeas de derecho de acceso a la información ambiental (directivas Aarhus que se trasponen a la legislación estatal por la Ley 27/2006 del 18 de julio de 2006). Creemos que estos derechos básicos se han incumplido". Zelaia anuncia que en caso de que la sentencia sea negativa a sus intereses acudirán a los tribunales europeos y "si es

SUSTRAI

Batallas pendientes

SUSTRAI ERAKUNTZA SE ACTIVÓ DESDE HACE UN AÑO COMO HERRAMIENTA ÚTIL DE LA LUCHA MEDIOAMBIENTAL CONTRA OBRAS DESARROLLISTAS



Martín José Zelaia, presidente de la Fundación Sustrai Erakuntza. FOTO: CEDIDA

favorable, abrirá un precedente".

Zelaia entiende que el contencioso que han abierto con el TAV guarda similitudes con "todas las grandes obras proyectadas. La forma de que la población no tenga acceso a la información es impedirlo mediante trámites lo más oscuros posibles y lo menos públicos. Cuando la sociedad conoce toda la verdad de cualquier proceso puede informar mucho mejor de cualquier tipo de obra. En el caso del TAV la obsesión es que con excusas por cuestiones de seguridad, o de capacidad técnica o simplemente sin excusas, se niega todo acceso a la información medioambiental en este tipo de obra". De hecho, Sustrai Erakuntza recuerda que ahora existen propietarios de tierras "en Cadreita, Villafranca y Valtierra que ni sabían que les iba a afectar el TAV y no han podido formular las alegaciones pertinentes para sus expropiaciones".

LAS TÉRMICAS DE CASTEJÓN Objetivo: el desmantelamiento

Sobre los objetivos, la fundación en defensa del medio ambiente remarca que "Sustrai es una apuesta a largo plazo, ya que no surge como respuesta en caliente contra un proyecto en concreto" y no es una fundación que busque "solapar la acción de los movimientos sociales. Esa lucha no hay que dejarla, y después tenemos que ganar peso en el terreno administrativo. Cuando se han llegado a iniciar los procesos legales se ha llegado tarde. Las plataformas ciudadanas tienen un momento de subida y otro tras siete u ocho años de bajada y resignación, que es en realidad cuando empiezan a ganarse los juicios, como ocurre en las térmicas de Castejón".

Sale a colación un asunto de plena actualidad, por el fallo del Tribunal

"La incineradora se guía antes por criterios económicos y supone retroceder en la pionera gestión de residuos"

MARTÍN JOSÉ ZELAIA
Presidente de Sustrai Erakuntza

Superior de Madrid que rechaza la ampliación de la central de Elerebro, y Sustrai admite que no parará hasta el desmantelamiento de las centrales. "Las tres sentencias que han dado la razón al movimiento contra las centrales (dos en el TSJN y una en el TSJM) lo que han venido a decir es que se han construido unas instalaciones nocivas, peligrosas e insalubres incumpliendo la legislación que estaba entonces en vigor. Eso ha obligado al Gobierno de Navarra y al Estado a cambiar la legislación, anular las distancias de seguridad (de hecho había más distancia en la época franquista, con 2.000 metros) pero eso exige unas condiciones de seguridad más estrictas. Ahora ganamos los recursos por la distancia, después será por las condiciones de seguridad. Una obra de este tipo requiere de tres figuras legales: una autorización ambiental integrada, el PSIS y la licencia del Ministerio de Industria, y las tres son ilegales. Esta batalla la ganaremos cuando se desmantelen esas centrales". Zelaia achaca a la judicatura española cierta candidez en asuntos medioambientales, ya que "los jueces no están preparados todavía para una normativa relativamente nueva y hay muchos jueces que no quieren ni saber de estos temas. Pero, a nivel europeo hay una conciencia mayor y más posibilidades de éxito".

EL PRÓXIMO RETO Parar la incineradora

Pero no sólo en las vías del tren o en la distancia de seguridad de las centrales queda estancada la acción de Sustrai. "Nuestro siguiente frente será la incineradora que pretende instalarse en Valdizarbe o Valdorba", anuncia Zelaia, que señala que están ultimando el recurso contra el plan de residuos que se ha aprobado para tal instalación. Cree Zelaia que existen defectos de fondo y forma y que "se actúa a hechos consumados. Se han asumido algunas aportaciones de los colectivos sociales a modo de barniz, no aspiran a mejorar la gestión de los residuos que se ha llevado de forma pionera en Navarra. Existen alternativas, como en Cataluña, Guipúzcoa o Italia, en las que existe la recogida puerta a puerta, y habría que aplicar los principios de reducción, reutilización y reciclaje. Hay planes en marcha que pueden llegar a recuperar el 80% de los residuos y que podrían ser utilizados como compostaje y vendrían muy bien al agro navarro. Lo que se esconde detrás de las incineradoras es los intereses de las constructoras y la mafia de los gestores de las basuras. Hay planteamientos economicistas por encima de los intereses de calidad de vida de las personas. El objetivo tiene que ser reducir y si ponemos una incineradora que nos quema todo, casi fomentamos el consumo".

La central térmica de Castejón, en pleno funcionamiento.

FOTO: MIGUEL ÁNGEL GALILEA



Martin Zelaia

■ ■ Sustrai erakuntza fundazioko kidea

11/06/02

Oihana Gallo eta Mainer Betelu

Sustrai Erakuntza Fundazioa Abiadura Handiko Trenaren kontra eta lurra erasotzen duten beste hainbat makroproiekturen kontra maila juridikoan borrokatzeko sortu zen duela urtebete pasa. "Sustrai Erakuntza beste baliabide bat da makroproiektu hauei oztopoak jartzeko, denbora irabazteko eta plataformen artean elkarlanean aritzeko" dio Martin Zelaiak. Fundazioaren lanaz aritu zen altsasuarra BELEIXE irratian (FM 107.3).



Sustrai erakuntza fundazioa noiz sortu zen eta zergatik?

Lurraren zapalkuntzak asko arduratzen gaitu, eta nahi ditugu gauzak ikertu sustraira, sakonera joanda. Urte batzuk daramatzagu Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontra lanean, eta hortik abiatu zen hau. Fundazioa, berez, iaz sortu genuen. Castejongo zentral termikoaren aurkako gaia daramaten abokatu batzuekin lan egiteko aukera sortu zen, eta erabaki genuen hori aprobetxatu behar genuela. Izan ere, arazo larri bat dugu AHT-rekin, gai hau ez baita juridikoki landu orain arte. Sustrai Erakuntza Fundazioa sortu genuen AHT-ren kontra maila juridikoan egiteko.

Zeintzuk dira Sustrai fundazioaren helburuak?

Lurraren zaintza egitea batez ere, baina dena arlo juridiko batetik begiratuta. Makroproiektu guztiak aztertu nahi ditugu, ikusteko ea

zein eragina duten ingurugiroan eta haien kontra zer egin dezakegun, bereziki arlo juridikotik.

Finean helburua AHT gelditzea litzateke, edo Castejongo zentral termikoa ixtea. Ziur gaude soilik juridikoki ez ditugula geldituko, giza mobilizazioak lortuko du. Baina beharrezkoa ikusten dugu baliabide guztiak erabiltzea, eta batez ere krisi garai honetan denbora irabaztea, mobilizazio horiek beste eskenatoki batean kokatzeko. Bide juridikoarekin aukera bat ikusten dugu, proiektuak geldiaraztearena, juridikoki kontra eginez haiek oztopatu ahal ditugu eta horrek denbora irabazteko balio ahal du. Aldi berean egungo eztabaidetan beste arrazoi batzuk sartuko ditugu, edo besterik gabe eztabaida irekiko dugu, zeren hori ere faltan botatzen da. Nafarroan ez da publikoki gai hauen inguruko eztabaida politikorik egin.

Gai hauen inguruko informazioa jaso nahi duzue, gero informazioa gizarteari helarazteko?

Bai, horrela hasi ginen lanean. Nafarroako Gobernu zuzenki salatu genuen informazioa ukatzeagatik. Orain dela bizpahiru urte AHT-ri buruzko informazioa eskatu genien; beti ezezkoa erantzuten ziguten edo ez ziguten ezer erantzuten. Arartekora jo genuen eta arrazoi eman zigun bitan. Azkenik Nafarroako Auzitegi Gorenera joan ginen, hemen oinarritzko lege batzuk ukatzen zirela salatuz. Izan ere, ingurumen arloan legeak defentsa handia ematen dio gizarteari.

Beste herrialdeetan informazio hori ukatzea legala da?

Informazio hori ukatu izana demostratu behar da, eta horregatik joan gara auzitegietara. Orain arte ez dugu ezagutzen halako kasurik, eta honek aurrekari bat markatu dezake. Lege hau 2006an jarri zen martxan estatu mailan baina Europar askoz ere urte gehiago daramatzate, informazio arloan, eta inportantea ikusi genuen hau. Nahiz eta honek AHT ez geldiarazi, kolokan jar dezake gobernuaren diskurtso hori: informazio eza-demokrazia. Iaz aurkeztu genuen errekurtsu hau eta oraindik tribunalak ez du gauza mugitu. Ikusi dute hemen arazo bat dagoela eta ez dira ausartu sententzia ateratzera. Orduan baliteke igual Europara joan behar izatea kexa aurkeztera.

Nork osatzen duzue fundazioa?

Fundazioak kudeatzen dira patronatu baten bitartez eta patronatuan elkartu gara elkarrekin konfiantza asko daukagun lagunak, lurraren alde lan egiteko. Ez gara profesionalak eta ez dugu ezer kobratzen fundazioan egoteagatik. Nafar herritarrak gara, besterik ez. Gai hauen inguruan sentsibilizatuta gaude, eta AHT-ren aurka esperientzia dugu. 10 bat pertsona gara biltzen garenak, Tafalla, Araitz, Iruñerria, Erribera eta Sakanakoak. Lizarraldera eta Baztan aldera zabaldu nahi dugu historia.

Pertsonak, taldeak edo udalak Sustrairi babesa eman diote?

Gure helburua da gizarte sare zabal bat sortzea. Izan ere fundazio hau partikularren ekarpenekin mantentzen da, abokatu horiek profesional

mailan modu duinean lan egin dezaten. Horregatik 60 bat pertsona gaude sare horretan eta hilero handitzen goaz. Tartean ere badaude hainbat erakunde –talde ekologistak, sindikatuak, udalak...- babesa ematen.

Nola egiten duzue lan?

Batetik abokatuekin jarraipena egiten dugu, dauzkagun errekurtsok nola dauden ikusteko eta zein errekurtsok berri sar ditzakegun aztertzeko. Baina gure baliabideak mugatuak dira. Ezin gara sartu AHTren gauza guztiak salatzerara. Esaterako, desjabetze prozesu batean ezin gara sartu lurjabe guztiak defendatzerara. Ikusten dugu zein lurjabe egongo lirartekeen prest bere lurrak defendatzeko borrokan bukaeraraino joateko. Eta lehentasunak ezartzen ditugu.

Dugun beste lan ildo bat sare hau handitzearena da. Ez bakarrik diru iturriak lortzeko, baizik teknikariak lortzeko ere, abokatuei laguntzeko. Adibidez Iruñerrian AHT-rako geltokia egin behar dute Etxabakoitz inguruan, eta momentu batean ikusi zen lurraren kontaminazioari buruz jende adituaren beharra. Hor dago Inquinasa enpresa, eta ez dakigu mugitu behar duten edo ez, arazo bat dute. Abokatuek kutsaduraren inguruko aditu bat behar zuten errekurtsok argudioak sartzeko.

Beste tokietatik iristen ez den informazioa zuek ere helarazten duzue.

Bai, horretarako jarri dugu martxan www.sustraiarakuntza.org web gunea eta e-mailak bidaltzen dizkiegu kontaktuei. Dugun informazioa bidaltzen dugu, abokatuek eta adituek ematen digutena. Agian informazio hau teknikoak izan daiteke. Guk elkarlana egiten dugu AHT Gelditu Elkarlanarekin. Osagarriak gara. Itoitzekin gertatutakoa ikusita argi genuen arlo juridikotik borroka egin behar genuela. Itoitzen inguruan juridikoki lan handia eta polita egin zen, baina azkenean urtegia egin zenez mesfidantza sortu zen. Baina konfiantza hori berreskuratzeko beharra ikusten dugu. Ez dira baliabideak baztertu behar, baizik eta denak aprobetxatu, eta saiatzen gara gure informazio baliabideetan gai guztiez hitz egiten, ikuspuntu ezberdinetatik. Gai juridiko-teknikoa ere hartzen.

Salaketa gehiago ere jarri dituzue.

Aurreikusten da uztailan Villafrancan eta Kadreitan AHT-ren lehendabiziko lanak hasiko direla, eta Auzitegi Nazionalera jo dugu lan horiek ilegalak direla salatzerara. Duela 7 urte ingurumen-inpaktuaren inguruko deklarazio batzuk egin ziren eta 5 urtetan iraungitzen dira edo epea amaitzen zaie. Salaketarekin ea lanak hasi baino lehen gelditzea lortzen dugun. Eta halako gauza asko.

Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralak Sakanarekin zerikusia du. Ondorioak ere latzak izango dira?

Aurrera doa bai. 2010eko urte bukaeran onartu zen plana, otsailan

publikatu zen eta automatikoki guk ikusi genuen prozesua gaizki egin zutela eta edukian ere akats asko zeudela, batez ere Europako direktiba edo zuzentarauak ez zirela betetzen. Apirilaren hasieran Sakanako Mankomunitatearekin batera errekurtsio bat aurkeztu genuen, berriki onartu digutena. Orain hasiko da prozesua, eta ea plana gelditzeko gai ote garen.

Zer da errekurtsioan eskatu zenutena?

10 urterako plana da, eta plan hori anulatzeko eskatu genuen errekurtsioan, plan horrek akatsak dituelako arlo guztietan, forman eta fondoan. Plan horrek 250 milioi euro inguruko aurrekontua dakar, eta horretatik %90 gastatuko lirateke erraustegi batean. Horrek atzera botako luke birziklapenaren inguruan orain arte egin den lan asko. Gobernuaren hurrengo pausua erraustegi planta baten proiektua onartzea litzateke. Hemendik urte batera aterako litzateke, eta erraustegia non egingen den jasoko da. Baliteke Iruñerria eta Tafalla artean izatea edo Olaztiko porlandegia bihurtzea plan horretarako erraustegia. Dena den, badirudi Olaztiko plantak ez dituela betetzen legalki eta teknikoki behar diren ezaugarriak. Ikusi behar gure errekurtsioarekin eta tribunalak esaten duenarekin gai ote garen plana gelditzeko.

Castejongo Zentral Termikoaren kontra lanean ere.

Hau izan da gure sorterrria. Hango plataformakoek sekulako ibilbidea dute. Orain batu egin ditugu gure borrokak. Beraiek 7 urte daramatzate, nahiko nekatuta, eta guk jarraituko dugu. Tribunalek onartu dute zentralak ilegalak direla, eta orain falta dena da sententzia horiek aplikatzea. Ziurrenik Europara joko dugu, eta ea lortzen den. Bestalde, goi tentsioko lineen auziak kezkatzen gaitu, bere garaian Lizarraldetik joan behar zirenak eta badirudi Sakana aldetik etorriko direla. Lekarozen ere Aroztegia deituko zaion urbanizazio bat egiteko asmoa dago... hainbat gai daude.

Makroproiektu horien kontra egiteko elkartzeari bidea?

Bai, lan amankomuna egin behar dugu. Sustrai sekulako tresna izan daiteke horretarako, beste taldeei ere juridikoki laguntzeko tresna. Geroz eta azpiegitura erraldoi gehiago daude naturaren aurka egiten dutenak, baina bereziki gizartearen kontra daudenak, gizartearen partaidetzarik gabe eta diru publikoarekin egiten ari direnak, eta han-hemenka plataformak sortzen dira gure herrietan kolpe hauen kontra defendatzeko. AHT-ren kontrako borrokak ikuspuntu hori eman digu, eskualde ezberdinen elkarlana behar dela. Eta jabetu gara plataforma hauek teknikoki edo juridikoki laguntza behar dutela. Bakoitza bere aldetik joaten bada asko kostatzen da aurrera pausuak egitea, eta guk Sustrai Erakuntzatik elkarlanean lan egiteko apustu egiten dugu. Ez soilik AHT gelditzeko lan egiteko, edo ondoko erraustegia edo harrobia edo gertutik tokatzen zaizkigun gauzak. Guztiak gara Nafarroako Gobernuaren biktimak kasu honetan, eta defentsa horretan ari gara. Ildo honetan, Nafarroa Bizirik Nahi Dugu

Plataforma aurkeztu berri dugu, plataforma hauek guztiak elkartzen gaituena.

Nola begiratzen diozue Sakanako etorkizunari?

Momentuz ematen du latza izango dela. AHT eta goi tentsioko lineak etortzen zaizkigu, akaso Portlanden erraustegi bat jarri dezakete...Dena den Cementosen badugu erraustegi bat, Portland oso kutsakorra izan daiteke. Altsasu eta Urdiain artean poligono industrial handi bat egin nahi dute... gure bailara osoa geratu daiteke urbanizatuta eta zementuzko plaka batekin. Auskalo!

Badirudi gure agintariak ez direla ohartu zein krisi motatan gauden eta inertziarekin ari dira lanean. Krisitik ateratzeko argudio zaharrak planteatzen dituzte, orain arte erabilitakoak, eta hain zuzen horrek eraman gaitu krisira. AHT 1992an hasi zen egiten Sevillara joateko. "El progreso, el empleo para toda Andalucía" zioten. Gaur egun zer dago Andaluzian? Eta hemen berdin. "Olaztin porlandegia erraustegi ez bada bihurtzen denok langabeziara goaz". Hori txantaje bat da. Baina gaur egungo krisiak gaineratik pasatuko gaitu eta ez dut uste gai izango direnik nahi duten guztia lortzeko. Petrolioaren krisia ere larria izango da. Gero eta garestiago da eta horrek mugitu dezake edozein ekonomia mundu mailan. Eta bere eraginak izanen ditu hemen bertan.

Eta horren aurrean...

Guk bitartean lanean jarraituko dugu: laguntzen, animatzen... gogoratu Itoizekin mobilizazio handiena sortu zela tribunalak arrazoia eman zionean Itoizeko urtegiaren aurka zegoen jendeari. Sustrai Erakuntza beste baliabide bat da oztopoak jartzeko, denbora irabazteko eta elkarlanean jartzeko.

www.sustraiarakuntza.org edo www.fundacionsustrai.org

Fundazioari buruzko informazio guztia eta sare sozialetan sartzeko aukera.

Partekatu

Atsegin

[**Aurrekoak ikusi**]

Bierrik Fundazioa | Foruen plaza 23 ,1. | 31800 Altsasu (Nafarroa) | Tfnoa.: 948 56 42 75 | Faxe: 948 56 21 07 | E-mail: guaixe@guaixe.net

[Web Mapa](#) | [Lege Oharra](#) | [Datuak Babesteko Politika](#) | [Web Diseinu eta Programazioa](#)

